

ALKATE DEKRETUAREN JAKINARAZPENA  
NOTIFICACION DE DECRETO DE ALCALDIA

IRTEERA-ERREGISTROA  
Zkia .....  
Data .....

**Alkate Dekretua, 2021eko irailaren 28ean 1005 zenbakiarekin Alkatetzaren Dekretuen Liburuan jasoa. Hauxe dio hitzez hitz:**

**HAZ eta pertsonal zerbitzuko errefortzu kontratazioa, lan pilaketagatik, 9 hilabetez.**

GGBB teknikariaren (Gemma Urbina) txostenaren bidez, 2 administrari hautatzeko prozedura hasi zen, Giza Baliabide zerbitzua (pertsonaleko gaiak) eta herritarrentzako arreta-zerbitzua indartzeko. Bertan hautaketa giteko irizpideak ezarri ziren.

Alkateak sinatutako lan-eskaintzaren eskaeraren ondoren (LAN ESKAINTZA LANBIDE: 162021005624), enplegu-bulegotik 50 hautagai aurkeztu ziren.

Epaimahaiak prozesu horri buruz egindako hurrenkera ikusita.

Kontuan harturik 5/2015 ED, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren 10. Artikulua, bitarteko funtzionarioei buruzko xedapenetan jasotzen duena:

*"1. Bitarteko funtzionarioak dira, beharragatik eta premiagatik berariaz justifikatutako arrazoiengatik, karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak betetzeko aldi baterako bitarteko funtzionario izendatzen direnak, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:*

*D) zeregin-kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean, gehienez ere bederlatzi hilabeteko epean, hemezortzi hilabeteko aldian."*

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko alkate naizenez eta apirilaren 2ko 7/1985 legeko 21.1.g) eta h) artikulua (Toki-araubidearen Oinarriak arautzen duen Legea) ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, honako hau agintzea erabaki dut:

**Lehenengoa.-** ADMINISTRARI bezala, bitarteko funtzionario bezala izendatzeko MERITUEN BEHIN-BETIKO BALORAZIOA eta hurrenkera onartzea. Hurrenkera honi dagokion publizitatea emango zaio, udaleko web orrian eta iragarki taulan.

**Bigarrena.-** Lan pilaketagatik, Olatz Arritokie Arregi Urbietara andrea (NAN: 044332127H) izendatzea, 2021eko urriaren 5etik, 2022ko uztailaren 4ra arte, bitarteko funtzionario bezala, TREBEP 10.1. d) ahalbidetzen duen bezala, HAZeko zerbitzurako.

**Hirugarrena.-** Lan pilaketagatik, Sara Vicente Caballero andrea (NAN: 072478420S) izendatzea, 2021eko urriaren 5etik, 2022ko uztailaren 4ra arte, bitarteko funtzionario bezala, TREBEP 10.1. d) ahalbidetzen duen bezala, Giza Baliabide zerbitzurako.

**Laugarrena.-** Izendapen hauek bertan behera geratuko da legeria aplikagarrian aurreikusitako kasuetan, eta, bereziki,

- Beharrezana eta premia desagertzean.
- Izendapenaren arrazoia desagertzean.
- Izendapenean berariaz jasotako epe baimendua amaitzeagatik.
- Funtzionario izaera galtzeko beste arrazoiren bat ematen bada.

**Bostgarrena.-** Ebazpen hau interesdunei, Udaleko Kontu-hartzaitzari eta Giza Baliabide sailari jakinaraztea.

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori

Oñatin, 2021eko urriaren 5ean



Idazkariak

Iñigo Roldán Catalán